



Julene Azpeitia
Lehiaketa 2010

Ipuinak
Olerkiak
Bertsoak

Julene Azpeitia lehiaketa



2010. urtea

Argitaratzailea: _____



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

Laguntzaileak: _____



■
**Bizkaiko Foru
Aldundia**
Kultura Saila

■
*Argitalpen honek Bizkaiko Foru Aldundiaren
Kultura Sailaren laguntza jaso du*



KULTURA SAILA

Izenburua: Julene Azpeitia Lehiaketa. 2010. urtea

Azala eta barruko marrazkiak: Imanol Larrinaga

Argitaratzailea: Durangoko Udala

Maketazio eta fotomekanika: Gertu. Oñati

Inprimategia: Gertu. Oñati

Lege Gordailua: SS-1541-2010

2010eko azaroa

aurkibidea

HITZAURREA..... 7

*Mari Jose Balier Orobio-Urrutia
Euskara eta Kultura Batzordeko presidentea*

IPUINAK

HARKAITZEKO NESKA 11

June Murua Montejo

NIRE BIZITZA 17

Lucia Lorenzo

ERLOJUAREN AHALMENA..... 23

Iñigo Aranburu Fernandez

GERRAKO PASARTE BAT 29

Martin Loizate Sarrionandia

ZUHAITZ GENEALOGIKOA 37

Paule Alzaga Garitaonandia

LAU PARETEN ARTEAN..... 47

Arnaitz Iriondo Zugazartaza

ZUZENTZAILE BATEN BIZITZA GOGORRA 55

Maialen Galarza Garrastatsu

LEIZEAK 65

Josu Unzueta Ajuria

OLERKIAK

BIHOTZA	75
<i>Saioa Hernando Torres</i>	
ZU ZARENA.....	79
<i>Irati Arrieta Diaz</i>	
EGUNEROKOAREN EGUNA	83
<i>Eneko Sagardoy Mugika</i>	
NAHIEAN	87
<i>Eneko Sagardoy Mugika</i>	
ESKALEAREN POZ TOPOGRAFIKOA	91
<i>Aitor Albiztur Pulido</i>	

BERTSO PAPERAK

NIRE ALTXORRA	97
<i>Julene Sada Sologuren</i>	
ABERATSAK.....	101
<i>Igor Uruburu Martinez</i>	
ARTISTAK	105
<i>Eneko Sagardoy Mugika</i>	
ZAHARRAK BERRI	109
<i>Iñigo Legorburu Arregi</i>	

Il tesoro di Clarabella (Clarabellaren altxorra) kontakizunean Mickey eta bere aitona Horaciok 1863. urteko mapa zahar bat aurkitzen dute. Mapak erreferentzia apur hauek baino ez ditu ematen: “Skeleton Island, E.S.E., White Rock ... arbola handi bat eta 10 oinetara arbola txiki bat: erdian Clarabellaren altxorra”.

Holako eginkizunetarako behar den tresneria lepora bota eta Skeleton uharterantz abiatu ziren Mickey eta aitona Horacio. Uste baino arinago aurkitu zuten *White Rock* harkaitza, uharteko gainerako harkaitz guztiak ilun samarrak baitira. Eta arbola handia ere erraz aurkitu zuten, baina arbola txikirik ez. Buelta batera, buelta bestera, baina ez zegoen arbola txikiaren inongo arrastorik.

Mickey, ordea, zolia da, eta hauxe diotso aitonari: “Aitona, mapa 1863. urtekoa da, ezta? Eta gu 1933an gaude. Horrek esan nahi du 70 urte pasa direla mapa idatzi zenetik. Beraz, orduko arbola txikiak hazia behar du dagoeneko, eta orduko arbola zaharra baliteke haizeak edo aizkoraren batek botata egotea. Beste modu batean esanda: orain ikusten dugun arbola handia orduko arbola txikia da. Beraz, arbola zaharraren arrastoren bat bilatu behar dugu altxorra aurkituko badugu.”

Eta halaxe, zutik zirauen arbolaren 10 oinetara enbor erdi ustel bat aurkitu zuten, arbola zaharraren erlikia miresgarria. Palak eta aitzurrak astindu eta, berehalako batean, Clarabellaren altxorra aurkitu zuten.

Julene Azpeitia Lehiaketa ere nortasun berezko altxorra bilakatu zaigu: Orotara, 111 ipuin, 13 olerki eta 40 bertso saritu eta argitaratu ditugu liburu zein baino zein distiragarriagoa. Ilustrazioak ere ez dira atzean geratzen, guztira 400 dira. Eta papelean ez ezik “durango-euskaraz.net” atarian ere jasota daude guztiak.

Udal agintarioro belaunaldiz belaunaldi heldu zaizkigun altxor zaharrak zaintzea eta eskuragarri jartzea dagokigu, gure kulturaren zutabe eta eusgarri nagusi direlako; baina, aldi berean, euskal kultura sustatzea helburu duten ekimen berriak ere hauspotu behar ditugu bere bidea egin dezaten eta, urteen joanean, euskal kulturaren altxortegi nagusian dagokien lekua irabazi dezaten.

Hortaz, atera ditzagun gure altxor preziatuak zoko ezkutuetatik eta bihur ditzagun guztion ondare bizi eta emankor.

Durango, 2010eko azaroan

Mari Jose Balier Orobio-Urrutia
Euskara eta Kultura Batzordeko Presidentea

juleneazpeitia

lehia keta

2 0 1 0

Ipuinak



June Murua Montejo

Irabazlea 11-12 urteko sailean

Landako ikastetxea

julene azpeitia lehiaketa • 2010 urtea



Harkaitzeko neska

Kostaldeko herri txiki batean, inork ezagutzen ez duena, badago marmolez eginiko neska bat, eta bere ondoan hilarri bat. Hilarrian, ez dago izenik, hau baino ez du jartzen: “Pertsonak hil egiten dira, maitasuna ez”. Hau kontatzen badizuet, atzean duen istorioarengatik da.

Orain baino hirurogei urte lehenago, herri honetan, bazegoen itsasoarekin amets egiten zuen neska bat. Egun guztietan berdina egiten zuen: goizean hondartzatik joaten zen maskor eta karakola bila; eguerdian, arroka batean esertzen zen eta jaten zuen bitartean itsasoa begiratzen zuen liluraturik; arratsaldean, arroka horretan eseri eta itsasoko olatuak margotzen zituen. Herritarrak harkaitzeko neska deitzen zuten, han igarotzen baitzuen ia egun osoa. Egun batean, herrira iritsi berria zen mutil bat, hondartzera joan zen lasaitasun bila, eta han ikusi zuen harkaitzeko neska. Hain zen ederra, bere begi berdeekin eta bere ile luze eta beltzarekin..., ezen mutilak ezagutu nahi zuen, berarekin egon nahi zuen... orduan harkaitzera igo eta berarekin hitz egiten hasi zen:

- Kaixo, egun ederra ez da? Itsasoa bare-barea dago... eta oso polita da...

- Bai, itsasoa ederra da, batzuetan berde kolorekoa da eta besteetan urdin argi-argia...

Ordu bat hitz egiten egon eta gero, mutila etxera joan zen. Handik aurrera egunero joaten hasi zen, beti ordu berean. Bi hilabete eta gero, mutilak harkaitzeko neskarekin amets egiten hasi zen, maiteminduta zegoen. Neskari sentitzen zuena adierazteko, olerkiak idazten eta



bidaltzen hasi zen. Egun batzuk geroago, gutun handi bat iritsi zitzaion. Ireki zuenean, marrazki handi bat ikusi zuen, marrazkian itsasoa agertzen zen eta, itsasoan, txalupa bat zegoen. Mutilak, neskak idatzitako zerbait ikusi zuen:

“Badaude banatu ezin diren gauzak,»

Ermitaua eta bere karakola,

dortoka eta oskoia,

lumak eta hegaztiak, gu biak...

Ipuinak



Lucia Lorenzo

Akzesita 11-12 urteko sailean

San Antonio - Santa Rita ikastetxea

julene azpeitia lehiaketa • 2010 urtea



Nire bizitza

Fabrika botean jaiio naiz, beste batzuk bezala. Pertsonen menpe egoteko sortu naute. Ezin dut ezer egin. Makinatik atera eta gero froga batzuk egingo dizkidate: tiratu, margotu, putz egin...

- Amaituta dago, bikain!- diote langileek haien lana bukatutakoan.

Orain edozein lekutara bidaliko naute. Iparraldera, hegoaldera edo agian beste herrialde batera. Iparraldera joatea nahiko nuke. Zergatik iparraldera? Pentsatuko dut. Iparraldea hemendik gertu dagoenez denbora gutxiago egongo naiz hortik bidaiatzen kontrolik gabe. Ea nora bidaltzen nauten! Kamioi bat agertu da, eta nire neba-arrebetatik aldentzen naute. Baina berdin dio beste lagun batzuk egingo baititut bidaiari zehar. Hartu egin naute eta atzean uzten ditut apal hotz horiek. Agian beste batzuk okupatuko ditut, edo bizitzarik gabeko kaxoi bat hartuko dut. Mugimendua sentitzen dut, orduak daramatzat ilunpean eta ez dakit non amaituko dudan. Bidearen amaiera heldu da, supermerkatu bat da. Kamioiaren atea zabaldu dutenean euria ari dela ikusi dut. Iparraldea dela uste dut, ez dut hain zorte txarrik eduki.


Ez didate atseden hartzen uzten. Plastikoko batean bildu naute laranja koloreko pote batekin. Kaxetan sartu gaituzte eta berriro ere ilunpean nago. Potearekin hitz egiten hasi naiz baina ez du nire hizkuntza hitz egiten. Berriro ere kaxa zabaldu eta "ERAGINTZA" jartzen duen apal batzuetan kokatu gaituzte. Lehenengo lerroan gaude eta hemendik guztia ikusten da. Nire aurrean hondartzarako osagarriak daude. Pertsona mordoa dago guri begira baina inork ez gaitu hartzen. Bat-batean ume bat etorri eta saltoka hasi da ni hartzeko nahian. Bere ondoan dagoen emakume batek hartu eta saskian sartu gaitu, esnearekin eta okelarekin botera. Azkenean etxera heldu garela uste dut. Bi egun eman ditugu lasai-lasai etxean, baina koloredun poltsa baten amaitu dugu. Berriro mugimendua eta iluntasuna... Eskerrak atera gaituztela. Baina... baina,

nolako argitasuna eta nolako beroa! Jarraian harean ipini gaituzte. Falta zitzaiguna bero honekin eta eguzkipean!

Harea oso bero dago eta erretzen hasi naiz. Potetik askatu naute listuz betetako aho batera hurbiltzeko: putz egiten dute, handituz noa, gero eta gehiago ... “lehertu egingo naiz” Ostikada bat ematen didate, uretara botatzen naute, beste ostikada batekin ateratzen naute, gero zaplastada bat, berriro uretara, putz egiten dute, ezagutzen ez dudan jendeak jotzen nau, haizea dagoen momentuan haizearekin joaten naiz eta berriro ere ezagutzen ez dudan pertsona batek jotzen nau. Zoritxarrez berriro ere uretara noa eta azkenean neure tokira heltzen naiz... Erretzen ari naiz eta gainera harez beteta nago. Nire lagunari begiratzen diot “Iaranjazko potea”. Eskuoihalean etzanda dago, tapoia kentzen diote, barruko likidoa esku batean botatzen dute, eta gero maitasunarekin sakabanatzen dute gorputzetan zehar. Bera ez da erretzen.

- Zer gertatzen da? -amorrus pentsatu dut.

Beste ostikada bat jaso dut. Ume txiki batengana heldu naiz eta nire gainean eseri da. Bat-batean nire barruan zerbait arraro nabaritu dut. Zulatu egin naizela uste dut. Pixkanaka-pixkanaka txikitzen ari naiz eta nire bidaiaren amaiera dela da pentsatzen dudana bakarra. Bitartean nire kidea izan denari begiratzen diot eta niri ere bera bezalako krema izatea gustatuko litzaidakeela pentsatuz agurtzen naiz.



Ipuinak



Iñigo Aranburu Fernandez

Akzesita 11-12 urteko sailean

San Jose - Jesuitak ikastetxea

julene azpeitia lehiaketa • 2010 urtea



Erlojuaren ahalmena

Gaurkoa zen Aitorrek itxaroten zuen eguna, 1971ko azaroaren 17a. Bere urteguna. Opariak zabaltzeko irrikitan zegoen, baina ez ziren goizean iritsi. Aitorrek amarengana jo zuen galdetzera:

- Ama, ama, noiz emango dizkidazu opariak?

- Aitor, seme, badakizu aurten ezin dizugula ezer oparitu, oso garai txarra dugulako baserrian. Orain dela gutxi izan ditugu uholdeak -erantzun zion amak

- Baina jada hiru urte ditut eta oso handia naiz. Opariak nahi ditut! -protestatu zuen Aitorrek.

Berriketa han baretu zen amama Roxari agertu zenean. Amama Roxarik kutxatxo bat zekarren.

- Tori Aitor, merezi duzu.

- Mila esker amama Roxari! Munduko amamarik onena zara! Eskerrik asko! -eskertu zion Aitorrek.

Aitor arineketan joan zen logelara oparia zabaltzera. Kutxa zabaldu eta... sagu bat zegoen! Oso sagu polita, buztan luzekoa. Saguarekin batera erloju bat bertan. Egundoko oparia! Egia esan oso opari bitxia iruditu zitzaion, baina polita. Aitor pozez kantari zegoen. Korrika batez sukaldera jaitsi zen sagua lapiko baten sartzeko, eta berriro logelara igo zen.

Amama Roxarik sagu Frantziarra zela esan zion eta noski beste edozein animaliarik bezala izena behar zuela. Aitorrek baietz esan eta Sebastien izena jarri zion.

Sebastienek zazpi hilabete bete zituenean Aitorrek ahula eta arraro ikusten zuen, egunero egiten baitzuen botaka. Amama Roxarik susmo txarra hartzen zion saguaren jarrera arraroari eta ez zebilen oker, handik gutxira hil egin baitzen.

Amonaren ustez, erlojuari zegokion Sebastien egun hartan hiltzeko erabakia. Aitor oso haserretuta zegoen amamak oparitutako erlojuarekin erabaki okerra, maltzurra, hartu baitzuen. Aitor erlojua erabaki ororen arduraduna dela konturatu zen. Bere agindua beti ezinbestekoa delako. Beti, betidanik. Hori dela eta erlojua zen gertatukoaren errudun bakarra.

Aitorrek beste sagu bat izan zuen Sebastienen ostean. Sagu honi Felipe deitu zion. Aitor pozik zegoen Feliperekin oso sagu arrunta zelako. Egia esanda, ez zen Sebastien bezain jatuna, noizbehinka atearen ertzak jan arren.

Aitor poz-pezik zegoen, baina halako batean erlojuak beste erabaki gogor bat hartu zuen. Aitorrek itzelezko haserrea hartu zuen, ez zelako erlojuak halako erabaki bat hartzen zuen lehen aldia. Erlojua erabaki ororen arduraduna dela jabetu zen berriro ere. Bere agintea beti bete beharrekoa. Beti, betidanik. Horrexegatik, orain ere, erlojua zen gertatukoaren errudun bakarra.

Aitorren bizimodua arraroa bihurtu zen sagurik gabe, guztiz arraroa. Amari laguntzen eta mesedeak egiten pasatzen zituen egunak. Egun batean, bazkalordua aurretik, mesede bat eskatu zion amak Aitorri: ganbaratik katilu batzuk jaiste. Aitor ganbarara igo eta katiluen ondoan liburu zahar bat aurkitu zuen. Sukaldera jaitsi zenean amari galdetu zion:

- Ama, zer da liburu hau?

- Zer den jakiteko irakurri egin beharko duzu, Aitor -erantzun zion amak.

- Ideia ona -aitortu zuen Aitorrek.

Bazkalostean Aitor logelara joan zen liburua irakurtzera. Liburu bitxia zen. Liburuan ez zegoen ezer idatzita. Hori dela eta Aitor bertan idazten hasi zen:

“Ni Aitor naiz eta Berrizen bizi naiz, baserri eder batean. Asko gustatzen zaizkit saguak eta hainbat ditut: Sebastien, Felipe, Pepe, Mari eta Esti (azken hirurak asmatuak). Oso azkarrak dira bostak eta horregatik erlojua menperatu dute luzaroago bizitzeko. Orain hamasei urte dituzte eta oso ondo bizi dira. Nik, ehun eta bost urte ditut eta nire ama maiteak, mila. Badakizue zergatik? Erlojuarengandik aske bizi garelako eta lagunak ditugulako. Erlojua zabortegian dago bere gatibu ez garenaren ikur...”

Aitor oso nekatuta oheratu zen. Gau hartan amets esanguratsu bat izan zuen, eta erlojuarekin zuen zerikusia. Ametsetan gizon bat ari zitzaion Aitorri hitz egiten, honela:

“Ez dauka zentzurik liburu ziztrin batean errealitatea ezkutatzek, errealitateari aurpegira begiratu behar zaiolako, ezin baitugu saihestu. Erlojua errealitatea bizitzeko bidaia laguna da, naturako zikloan bizia hasi eta amaitu artekoa, neurtzeko, berarekin bizi beharra daukagu, ez dago besterik. Heriotza errealitatea da eta, arinago edo beranduago, heldu beharreko unea da. Izaki batzuen denbora besteena baino arinago heltzen da. Ulertzen al duzu Aitor?”

Goizean goiz esnatu zen Aitor, ametsetan gizon hark egindako galderaren erantzuna baiezkoa zela jakinik.

Ipuinak



Martin Loizate Sarrionandia

Irabazlea 13-14 urteko sailean

Kurutziaga Ikastola

julene azpeitia lehiaketa • 2010 urtea



Gerrako pasarte bat

Garaiko San Andres elizako kanpai hotsekin amaitu zen aitona Joxeren hileta. Mikeli, amama Maria Luisaren hobiratze eguna etorri zitzaion gogora, bost urte zituen galdu zuenean. Beste amona, amona Hortentsi, ez zuen ezagutu ere egin, jaio baino hiru hilabete lehenago hil baitzen. 13 urte zituen Mikelek eta bazekien arren noizbait gertatuko zela, oso triste zegoen. Aita zuen ondoan, negarrari eutsi ezinik, senide eta lagun guztiak agurtzen ama atzetik zuelarik, kontsolatu nahian. Bat batean, negarrari ekin zion Mikelek ere, lehen aldia baitzen aita negarrez ikusten zuena. Aita semearengan erreparatu bezain laster, negarrari utzi eta berarengana zuzendu zen, zerbait garrantzitsua esan nahi balio bezala. Alboan eseri zitzaion eta eskuaz belauna igurtzi bitartean, hauxe esan zion:

- Noizbait gertatu beharra zeukan. 84 urte zituen eta gaizki moldatzen hasita zegoen... Dagoen lekuan dagoela hemen baino hobeto egongo dela ziurtatzen dizut.

Gaztetxea pentsakor gelditu zen. Haserre zegoen bere buruarekin, aitona Joxerekin pasatutako denbora ez zuela aprobetxatu iruditzen zitzaion. Izan ere, ez zuen behin ere ez aitona Joxerekin bere gauzez hitz egiten eta aitona zerbait kontatzen hasten zenean, aitzakiaren bat erabiltzen zuen beti bere albotik alde egiteko. Normala zen bere buruarekin gaizki sentitzea eta behin eta berriz errepikatzen zuen bere baitan ez zuela ezertarako balio eta mundua kontra zeukala... hala ere bazekien pentsatzen zuen dena gezurra zela. Momentu horretan etorri

zitzaion gogora mutikoari aitona Joxek beti esan oi zuena; “gauza, okerrenetatik ere ikasten eta alde ona ikusten jakin behar da”.

Mikelek bazuen beste aitona bat oraindik eta promesa egin zuen berarekin igaroko zuen denbora osoan ondoan izango zuela edozertarako. Bi aldiz pentsatu gabe, bila hasi zen. Eliza atzean aurkitu zuen aitona, bakarrik zegoen eta aurpegian nabaritzen zitzaion tristura. Rafael zuen izena baina denek deitzen zioten Rafa eta Joxe baino bizpahiru urte gazteagoa zen. Nahiko altua zen eta bere begi urdinek apaintzen zioten aurpegi zimurtua. Bat batean, Mikelek bere besoko ebakiondoan erreparatu zuen, ez zion behin ere ikusi eta jakin mina piztu zitzaion. Hasieran animalia baten batek egingo zion susmoa zuen eta gero borrokaren baten ondorio izango zela, baina hoberena galdetzea zela pentsatu zuen. Beregan hurbildu eta agurtu ostean eta Joxeren inguruan pixka bat hitz egin ondoren zuzenean esan zion:

- Aitona, kontatuko al zenidake nola egin zenuen besoan daukazun orbaina?

- Bai horixe, txo -erantzun zion aitona- adineko pertsonoi gustatu egiten zaigu gure bilobei, lagunei edo seme-alabei antzinako istorioak kontatzea. Adi egon, kontatu behar dizudan gertaera oso zirraragarria baita:

1937ko martxoaren 31n gertatu zen gertakari hau, gerra garaian eta nik 13 urte nituela. Garai hartan, baserritarren seme-alaba gehienak ez ginen eskolara joaten, eta egun guztia baserrian pasatzen genuen, guraso edo aitona-amonei laguntzen. Aita Durangon zegoen, azoka egun normaletan bezala ganadua eta hazi batzuk erostera jaitsi zen alboko baserriko Juanen gurdiaekin. Juan ere berarekin jaitsi ohi zen, bere txikitako adiskidea baitzen, baina egun horretan egiteko batzuk zituelako, etxean geratu zen. Bitartean, ama eta biok lurra lantzen eta abereei jatekoa ematen genbiltzan.

Halako batean konturatu nintzen, ganaduak ura edateko aska bete gabe zegoela eta berehala, baseritik pare bat kilometrora zegoen iturrira abiatu nintzen, bi balde betetzeko asmoz, gure bordako iturriak ez baitzuen urik botatzen aurreko hilabetetik. Ama beti zegoen iturgina noiz etorriko ote zen galdezka, horrela ezin genuela jarraitu esanez eta

ezin ginela beti Iturbeko iturraino igo ur bila. Bestalde gerra garai haietan arriskutsua zela mendi tontorretara igotzea errepikatzen zuen behin eta berriz. Alferrikakoak izan ziren amaren garrasiak nengoen lekutik jadanik ez bainion entzuten eta entzun izan banio ere, ez dut uste kasu egingo nionik, buru gogorra bainintzen. Amaren oihuei kasu egin gabe aurrera jarraitu nuen, mendian gora, eskerreko eskuan bi baldeak nituen eta eskuinekoan aitonak bost urte egin nituenean erregalatutako eskumakila.

Zelai handi batean zehar nindoala, bat batean, zarata handi bat entzun nuen. Nire atzetik zetorren eta pixkanaka geroz eta ozenkiago entzuten nuen. Beldurtuta, atzera begiratu eta hegazkin ikaragarri bat ikusi nuen. Alemanen hegazkin bat zen (junker-52 bat) albo batean zuen nazien ikurragatik. Bi aldiz pentsatu gabe, bi baldeak eta bastoia lurrera bota eta korrika hasi nintzen, banekien ez zirela bakeak egitera etorri, txerri zikin haiek hil egin nahi ninduten. Lurretik hamar bat metrora zeudela, hegazkina disparatzen hasi zen. Orpoz orpo jarraitzen zidaten balek eta bistakoa zen ez nuela minutu bat gehiago iraungo bonbaketariaren aurretik korrika. Orduan, nire ezker aldean, zanga estu eta sakon bat ikusi nuen. Horixe zen nire salbazioa eta berehala sartu nintzen ubide hartan. Hegazkinak ez zuen amore eman eta bizpahiru bira eman zituen kanalaren inguruan, erretiratu baino lehen.

Konturatzerako, beso guztia odolez betea neukan eta hankak ere zikintzen ari zitzaizkidan atzamarretatik dariola neukan odolarekin. Kostata baina, azkenean, aurkitu nuen zauria: hemorragia handia neukan eta zorabiatzen ari nintzela sentitzen nuen. Ahal nuen moduan irten nintzen kanaletik eta ahalik eta arinen bueltatu nintzen etxera. Asko suffitu nuen etxerako bueltan; batzuetan jausi egiten nintzen lurrera, oreka galtzen nuen eta lurrean geratzen nintzen bizpahiru minutuz. Ordu beteren buruan iritsi nintzen baserriaren goiko muinora eta txarrena espero nuen, baina zorionez urrundu nintzen momentuan bezala aurkitu nuen bizilekua eta bertan zegoen ama. Kikilduta zegoen, negarrez, baina ikusi ninduenean, eserita zegoen aulkitik jauzi egin eta korrika etorri zitzaidan besarkada handi bat ematera. Hala ere, ez zitzaion aurpegia askorik aldatu eta galdetu egin nion.

- Ama, zergatik zaude horren triste? Ongi nago... zauri bat baino ez dut beso aldean.

- Aita hil egin dute - esan zidan amak negarrari cutsi ezinik -Durango bonbardatua izan da.



Entzun nuena sinetsi ezinik, negarrari eman nion. Amak eskua eman eta baserri barrura sartu ninduen. Han zegoen aita, sofán eserita eta begiak itxita zituela. Esku bat zauriz josirik zuen eta bihotzen zulo handi bat. Alboan zuen Juan, eskutik helduta eta negarrez.

- Lagundu izan banio ez zitzaion hau gertatuko -aipatu zuen Juanek.

- Egon zaitetz lasai Juan -adierazi zion amak- zuk ez daukazu ezeren errurik.

Giroa pixka bat baretu zenean, amak besoan nuen zauria garbitu zidan eta gero zapi zuri batekin estali.

- Barkatu Mikel, zauriarena kontatzeko eskatu didazu eta nik aitarena ere kontatu dizut -esan zion Rafak bilobari.

- Ez da ezer gertatzen aitona -erantzun zion mutikoak- oso gustura egon naiz zuri entzuten eta sentitzen dut benetan hain era gaiztoan galdu izana aita...

Aitonak ahal zuen indar guztiarekin besarkatu zuen Mikel eta segundo batzuk egon ziren horrela, mutikoaren gurasoak etorri arte.

Ipuinak



Paule Alzaga Garitaonandia

Akzesita 13-14 urteko sailean

San Antonio - Santa Rita ikastetxea

julene azpeitia lehiaketa • 2010 urtea



Zuhaitz genealogikoa

- Beno ikasleok, asteburu luzea oraingoa. Suposatzen dut irrikan egongo zaretela, ezta? esan zien irakasleak.

- Bai! Lau egun eskolarik gabe! -builaka ikasle guztiak.

- Je, je, je... San Jose zubia da bai, baina horrek ez zaituzte etxerako lanetatik libratuko.

- Joe...

- Ez kexatu hainbeste, ariketa erraz bat bakarrik da eta. Zuen familiako zuhaitz genealogikoa egin beharko duzue. Ongi?

- Bai, baina familia osoarena? -ikasleetariko batek.

- Oso osoa ez. Birramona-birraitonetatik, zuen neba-arreba eta lehengusuetara.

- Bale!

- Beno, eta orain jaso dena eta primeran pasa zubia. Agur.

Larunbat goiza da, zubiko lehen eguna. Alaitzek aiton-amonon etxean pasatuko du zubia, gurasoak Parisera joan baitira.

Erabaki du, hobe dela lehenengo egunean egitea zuhaitz genealogikoa, horrela beste hiru egunetan ez du zereginik izango. Ez zituen bere birramona-birraitonak ezagutu eta aiton-amonak etxean ez zeudenez, interneten bilatzea bururatu zitzaion.

Lehenik, aitaren gurasoen izenak jarri zituen eta ez zuen problemarik izan. Bertan agertu zitzaizkion birraitona-birramonen izenak.

Ondoren, amaren gurasoen izenak jarri zituen eta bertan ere birraitonak eta birramonak agertu ziren. Baina beherago zera zioen: Bikote honek ez du seme-alabarik, alaba erditzerakoan hil zen.

Zelan ez zutela seme-alabarik eta alaba hil egin zela? Nire ama zer da bada? Bizirik dago eta oso osasuntsu gainera! -pentsatu zuen Alaitzek.

Laster helduko da bazkal ordua. Alaitz amama laguntzen ari da bazkaria prestatzen.

- Amama, ezetz asmatu zer irakurri dudan lehen...-esaten dio Alaitzek amamari.

Ez badidazu esaten, zelan nahi duzu jakitea bada? Ez naiz asmatzailea. -erantzun zion berak.


- Interneten jartzen zuen, zuk eta aitonak ez zenutela seme-alabarik, zuen alaba erditzean hil zela.

- Zelako lelokeria- amamak urduri- ez egin kasurik interneten diotenari - amamak gaia utzi nahian.

- Zuk badiozu- Alaitzek.

- Nire betaurrekoak, non utzi ditut betaurrekoak? Logelan egongo dira, ohe gainean. Alaitz, joan zaitez haien bila mesedez. Baina kontuz, armairua txukuntzen aritu naiz eta dena hankaz gora dago.

Alaitz amamaren logelara joan zen, han betaurrekoak hartu eta irtetear zegoela armairuan inoiz ikusi ez zuen zulo bat ikusi zuen, atetxo batekin itxita. Normalean arropaz estalita egoten zen, baina amama armairua txukuntzen ari zenez ikusi egin zitekeen. Jakin min izugarria zuen hor barruan zer zegoen jakiteko, beraz zabaltzea erabaki zuen. Hau zorte txarra! giltzez itxita zegoen. Jarraian amamak dei egin zion bazkaltzera joan zedin, ez zuen astirik izan giltza topatzeko. Sukalderantz zihola amonak eta aitonak izandako elkarrizketa zati bat entzun zuen:



- Berdin zait umeak esan dizuna, ez dut gai horretaz berriz hitz egin nahi! -aitonak.

- Arrazoi duzu, bestela ... egia jakingo du -amonak.

Gero Alaitz sukaldera sartu zen, ezer entzun ez balu bezala eta jaten hasi ziren. Bazkalostean, bat-batean txirrina jo zuten. Lidia zen, Alaitzen lagunik onena, bere bila zetorren kalera irteteko.

- Zer Alaitz, jaitsiko zara? -galdetu zion Lidiak.

- Euria ari duenez, zergatik ez zara igotzen atertu arte?

- Ongi da, ireki atea mesedez.

- Lidia etxera igo zen. Bi lagunek konfiantza asko zeukaten haien artean, dena kontatzen zioten elkarri. Horregatik, Alaitzek gertatutakoaren berri eman zion Lidiari, internetekoa, zuloarena eta entzundako elkarrizketarena. Lidiak ez zekien zer esan, harri eta zur geratu zen.

- Nik zuloko giltza topatu behar dugula uste dut -bururatu zitzaion Alaitzi.

- Baina zulo horretan zure amamaren bitxiak egon daitezke -Lidiak.

- Zuk esan duzu, egon daitezke. Ongi da, topa dezagun giltza.

Etxe guztia arakatu zuten, baina arrastorik ez. Hainbeste denboran egon ziren bilatzen nekatuta zeudela jada. Beraz, egongelako besaulkietan etzan ziren deskantsatzera. Hango apal batean, aiton-amonen gaztaroko argazki batzuk zeuden.

- Ai! Ze arraro dagoen zure aitona ile zuririk gabe! -Lidiak harrituta.

Alaitzek koadroa eskuetan hartu eta Lidiaren ondoan eseri zen. Koadroa tokiz aldatu zutenean, zarata bitxi bat entzun zen.

- Zer zarata da hori? -Lidiak

- Mugi ezazu koadroa berriz. Egia da, ni pentsatzen ari naizena, pentsatzen ari al zara? -Alaitzek.

- Giltza barruan dago -biek batera.

Argazkia koadrotik atera zuten, eta han, koadro barruan, zegoen giltza. Bat-batean Lidiari mugikorrera dei egin zioten.

- Nor zen? -galdetu zion Alaitzek.

- Nire ama -erantzun zion-, etxera joan beharra dut, bihar jarraituko dugu ikerketarekin.

Gaua heldu zen. Amama eta aitite aspalditik zeuden lo hartuta. Une hori aprobe txatu zuen Alaitzek haien logelara joateko. Giltza eta linterna bat hartu eta harantz abiatu zen.

Orain ez zen armairuko zuloa ikusten, arropaz estalita baitzegoen. Arropak alde batera utzi zituen eta han zegoen zuloa. Oso urduri zegoen baina egin nahi zuen. Giltza zuloan sartu eta han koaderno lodi eta zahar bat zegoen, hautsez beteta. Koadernoaren azalean Bego Manzanares jartzen zuen.

- Zer egiten du nire amamak Bego Manzanares delako horren koadernoarekin? Zergatik zuen hain ezkutatuta? -galdetzen zion Alaitzek bere buruari.

Koaderno hartu, dena lehen zegoen bezala utzi eta ohera joan zen koaderno hartan jartzen zuena irakurtzera.

Zera zioen:

1968ko otsailaren 27an



Kaixo Larrauri senar-emazteak:

Nire izena Bego Manzanares da. Eskutitz honen bidez, nire bizitza kontatu nahi dizuet.

Ni, beti, Haron bizi izan naiz, Errioxan. Oso haurtzaro zoriontsua izan nuen. Gazte ezkondu nintzen, hogeita hiru urterekin hain zuzen, Manuel Garcia izena zuen gizon dotore batekin. Lehenengo hiru urteetan munduko emazterik zoriontsuena nintzela uste nuen, baina ez zen horrela.

Goiz eguzkitsu batean hasi zen dena. Manuelek hiru hilabete zeramatzan oso urduri lana zela eta: krisia haien negozioan eragiten hasia zela ematen zuen. Egoera berri hori jasanezina zen berarentzat.

Goiz hartan telefonoaren soinuak iratzarri gintuen. Manuel norbaitekin hitz egiten ari zen eta haserre zirudien. Eskegitzerakoan, zer gertatu zen galdetu nion eta langabezian zegoela erantzun zidan, dena pikutara joan zela.

Handik aurrera edateari ekin zion, egunero mozkortuta itzultzen zen etxera. Nik edonolakoak jasan izan behar nituen! Jipoiekin hasi eta bortxaketekin bukatu. Buruak etxetik alde egiteko esaten zidan baina bihotzak geratzeko.

Egun batean, etxeko eskaileretatik behera bultzatu ninduen. Konorterik gabe geratu nintzen eta ospitalera eramán ninduen. Ospitalean bakarrik jausi nintzela esan zuen. Hiru saihets apurtuta eta buruan izugarrizko kolpeak, konortea galtzea eragin zutena. Hogeita lau ordu izan ninduten froga mordoa egiten. Horrela jakinarazi zidaten lau asteko haurdunaldia nuela. Zein zoritxarra nire umearena! Zer gertatuko ote zen harrezkero? Dena beltz ikusten nuen.

Nire senarrak frogen emaitzak ikustean jakin zuen haurdun nengoela. Momentu horretan barkamena eskatzen hasi zen burua kontrolatu ezinean.

Zortzi hilabete gehiago jasan nituen, baina umea jaiotzeko astebete falta zela etxetik joan nintzen.

Euskal Herrirantz abiatu eta han nire lehengusina Aneren etxean bizi izan nintzen denboraldi baterako. Dena kontatu nion, nire beldurrak, nire asmoak... Umea nitaz hurbil ez egotea komeni zela, bera ere arriskuan egon zitekeelako eta ez nuen nahi berak nik bezain gaizki pasatzea. Haurra jaiotzear dago, asko jota bi egun barru. Arratsalde batean lehengusinak bikote ezagun batek erditzerakoan haurra galdu zuela esan zidan. Kostata baina haurra haiei uztea erabaki genuen. Nire alaba ospitalean jaio zen gauerdian, 1968ko martxoaren 1ean. Hiru egun ospitalean egon ondoren lehengusinaren etxera itzuli nintzen. Umea Laura Manzanares lez erregistratu zuen. Hobe da ni ez ezagutzea: nire alaba zuentzat izango da. Zaindu ezazue Laura zuena izango balitz moduan eta ez kontatu inori esan dizkizuedan gauzak. Mesedez eskatzen dizuet. Senarraren beldur naiz, edozein momentutan aurki nazake eta. Ahaztu nire izena, ahaztu dena! Mila esker eta besarkada bat:

Bego Manzanares



- Horrek esan nahi du nire ama adoptatua dela -Alaitzek harrিতuta. Aiton-amonari azalpen bat eskatuko diet.

Alaitzek bere aitona-amonara loalditik atera zituen eta galdera mordoa egiten hasi zen:

- Zer dira orri hauek? Zergatik ez diguzue egia esan? Zergatik? -Alaitzek oihuka.

- Nondik atera duzu hori? -aitonak.

- Gure baimenik gabe, ireki al duzu zuloa? -amonak gaia aldatu nahian.

- Amama utzi gaia aldatzeari! Horrek ez du garrantzirik! -Alaitzek.

- Lasai txiki, inoiz ez dizugu kontatu zure ama ezin delako ezertaz enteratu -aitonak laztanak egiten.

- Zergatik? -Alaitzek dena jakin nahian.

- Zure ama bere benetako ama topatzen saiatuko zelako eta hori ez zaio inori komeni -amamak guztia azaltzen.

- Ulertzen, txiki? -aitonak.

- Bai, baina... -Alaitz esaten hasi zen baina aitona moztu egin zion.



- Sssss, ez dago bainarik! Ulertu behar gaituzu. Zin egin genuen eta bete behar dugu. Ulertu al duzu?

- Bai, ulertu dut -Alaitzek.

- Ongi. Baina amari ez kontatu ezer, ados?

- Jakina. Badakit sekretu bat gordetzen, eta ez dut nire ama arriskuan jarriko.

Hurrengo egunean, Lidiak ea zerbait gehiago aurkitu zuen galdetu zion eta Alaitzek zuloan amamaren bitxiak baino ez zeudela erantzun zion. Beraz, nire zuhaitz genealogikoan nire ama agertu zen, baita nire aiton-amonak eta birraitona-birramonak ere. Eta honelaxe aurkeztu nion irakasleari.

Ipuinak



Arnaitz Iriondo Zugazartaza

Irabazlea 15-16 urteko sailean

Frai Juan de Zumarraga Institutua

julene azpeitia lehiaketa • 2010 urtea



Lau paretan artean

Non ote nago? Nora ote noa? Zenbat debora igaro beharko dut bertan? Norekin aurkituko naiz? Bakarrik egongo ote naiz? Baina ... zer da hau?

Bide ilun eta estu batetik noa. Nora narama bide honek? Hainbat galdera darabiltzat buruan jiraka eta ezin erantzunik aurkitu. Nire harridurarako ez naiz bakarria eta ni bezalako asko ikus ditzaket inguruan, denok berdin jantzita, denok urduri, denok galduta, denok beldurtuta, denok ezjakintasunean murgildurik. Zergatik ote gaude hemen? Bakoitzak daki zer dakarren motxilan, zer zama eta zer ardura duen bere gain. Bakoitzak daki zein den bere helburua eta zer lortzea edo espero duen. Urduritasuna eta ezinegona da nagusi gure artean. 33 cl-ko Coca-Cola gogoz astindu eta segituan zabaltzean sortzen den burbuila eztanda dirudigu. Hala ere, lehiakortasuna ere nabari dezaket ingurukoengan, baina gidari argi bat nabaritzen da taldean eta berak markatzen du jarraitu beharreko bidea.

Eta, isilik baina artega, burutu dugu pasillo ilun eta estu honetan zehar ibilbidea. Bi, hiru mendikate igo eta jaitsi ondoren sentitzen den nekea nabaritzen dut nire gorputzean ... eta buruan, nola ez. Lehen eguna izateko benetan esfortzu gogorra. Azkenean, ate bezalako bat gurutzatzean, begiak zarratu eta berriz ireki ditudanerako, lau hormen artean bakarrik nagoela ohartu naiz. Lehen begiradan, eta bigarrenean, eta hirugarrenean eta ... leku txikia, iruditu zait, mugatua, baina egia esan, ez

dut gehiago behar, denbora gutxiren buruan hemendik ateratzeko esperantza baitut. Portzierto, zenbat denbora egon beharko naiz bakardadean leku ezezagun honetan? Ez dakit. Ez dakit eguneko zer ordutan bizi naizen ere, zein egun den; ordea, oso argi daukat, 1994ko uztailaren 15a. Ahaztezina!

Leku hotza hasieran baina, dagoeneko, hobeto sentitzen naiz. Egunak, astiro baina, pasatzen doaz. Egunero egiteko berdina, baina ohitzen hasita nago. Lo asko egiten dut, uzten nauten bitartean noski, zeren egunean zehar mugimendua izaten da nagusi. Zarata ugari, joan-etorriak, jatorduak ... Hala ere, lasaitasun momentuak ere badaude eta orduan sentitzen naiz gusturen. Inoiz, gutxitan den arren, musika entzuteko aukera izaten dut eta horiek izaten dira niretzat unerik gogokoenak. Irudimena aske utzi eta etxeko zein senitartekoen ferekak sumatzen ditut orduan, babes eta lasaitasun azal ezin batek inguratzen nau, nahiz eta errealitatean lau pareten artean jarraitzen dudana. Dena aldatzen da tarte horietan eta indarberrituta ekiten diot geroko egitekoari.

Abenduaren 17a. Kostata baina denboraren nozioa ez dut galdu: 5 hilabete eta 2 egun. Leku hau gero eta txikiagoa iruditzen zait, espazio gehiago beharko nuke, pixka bat mugitzeko besterik ez bada. Nire gorputzak ere aldaketak sufritu ditu. Bertako janaria ez dut beti gustuko. Inoiz gogo txarrez egon edo eta bihotzerrea sentitzen dut. Horri, ariketa fisiko falta gehitu ezker... Hona hemen metamorfosia, tximeleta behar duena oraindik beldar bihurturik. Naturak agintzen duena ohi da eta ... Saiatu saiatzen naiz eta noizbehinka hanka luzatu edota besoak gogoz astintzen ditut, baina nekatu ere laster nekatzen naiz.

Hemen nagoenetik bakardadea da lagun izan dudana sentimendu nagusia. Nirekin batera heldu zirenekin ez dut harremanik izan eta faltan bota dut norekin hitz egin. Batzuetan hemendik kanpo entzun nazaten beharrezana sentitzen dut. Orduan, lau hormak indarrez kolpatzen ditut norbaitohartuko delakoan. Eta bitartean egunak aurrera doaz: urtarrilaren 21ean gaude dagoeneko.

Gaur egun berezia da. Usain ezezagun batek iratzartu nau nire loalditik. Begiak zabaltzearekin batera leku hau zulo bilakatu dela iruditu zait. Lehen



leku gutxi, orain gutxiago, bigarren pertsona bat baitago nirekin batera gelaxka honetan. Nondik agertu ote da? Nondik dator? Begiak zabal-zabalik ditu eta begira ari zait. Zer nahiko du? Egia esan ikara aurpegia dauka, baina nork daki! Itxura ez da dena, nahiz eta gehienetan horri ematen diogun garrantzia. Zein argiak eta aldi berean zein inozoak garen. Lasai egoteko keinua egin diot eta barre batekin erantzun dit. Nire barnealdean poztasun puntu bat nabaritu duteta bakardade sentimendua bat-batean desagertu dela iruditu zait. Dagoeneko ez nago bakarrik, elkarrekin bizitzen ikasi beharko dugu, baina ez ote gatoz mundu honetara disfrutatatu eta ahal den neurrian ikastera? Hori ba.

Egun gutxiren buruan lagun minak egin gara. Egia esan, hemen lotuak egoteak erraztu du gure hurbilketa. Ezer gutxi kontatu dit kanpokoaz, bera ere ezustekoan harrapatu ohi zuen hona etorri behar izateko, beraz, berdinketaz hasi dugu partida, ikusi beharko nola bukatzen den.

Denbora zerbaitetan eman beharko eta toki honetatik irtetea aurkituko dugun egoeraz mintzo izan gara sarritan, eta beste hainbat gauzaz. Egia esan, ez gara adituak horretan eta ezer gutxi egin dezakegu gure ingurua hobetu dadin baina ... Esaten nuen ba nik, itxura ez dela dena, benetan mutil jatorra dela. Nahiko lukete askok horrelako bizikidea honelako kasuetan. Inoiz imajina ezin nezakeen konexioa sentitu dugu, bat-batean, betiko ezagunak bagina bezala izan da, sentimendu azal ezina, harrigarria, pentsa, hemendik ateratzen garenerako ere planak egin ditugu. Eta horrela, oraingoan ia konturatu gabe, otsailak 28 bete ditu.

Baina dena ez da hitz egitea. Gure isiltasun eta bakardade momentuek ere bertan jarraitzen dute, eta batzuetan bakoitza bere pentsamenduetan murgiltzen gara, Bion burua antzeko gauzetan biraka dabilela egingo nuke apustu: bizitza eta mundu berriari ongi etorria emateko eguna noiz iritsiko den, beste batzuekin elkartzeko gogoia, guztien besarkadak, musuak eta mimoak jasotzeko nahia ... Eta nola ez, ama! Amaren aurpegia ikusteko desira, bera baita hurbilen sentitzen dudana pertsona, eta sarritan bere ahotsa entzuten dudala egingo nuke zin. Halako ahots gozo eta maitagarria, behin entzun eta ahazten ez dena, kantuz ekaitza baretzeko kapaza dena.

Oraingoan ere, zerbaitek zapuztu du momentu berezi hau. Norbaitek loalditik gogor astinduz iratzartuko bazintu bezala izan da. Zehatz-mehatz ez dakit zer den, baina horrelakoetan horma tinko hauek behera botatzeko gogoia pizten da nire baitan eta lehenbailehen hemendik ateratzeko eta garrasi egiteko gogoia kontrolaezina izaten dut. Eta benetan diotsuet, egun hori gertu dagoela sumatzen dut, laster izango gara libre eta orduan ahots goran hitz egingo diogu munduari. Baina hori denboraren esku dago, zain egotea besterik ez dugu.

Ulermen begiak antzeman ditut nire lagunkidearengan, ziur nago bera ere horrela sentitzen dela, eta hori aitzakia ez bada ere lasai nadin lortu du.

Gaur, 8 hilabete eta 15 egun bete dira bertaratu nintzenetik. Leku honek gero eta gehiago itotzen nau. Denbora asko da hemen sartuta daramadana eta nire bizikideak ere bereziki urduri dirudi gaurkoan. Askok mugitzen da, batera eta bestera dabil gelditu ezinik. Orduak dira, gure presondegi bero honetatik kanpo argi izpiak ikusi ditugula eta, zeren erakusle diren ez dakigun arren, isilean aterantz gerturatu ditugu gure burutxoak zerbait ikusteko asmoz. Berbaroa entzuten da baina ez dugu ulertzen esaten dutena. Pausoak ere entzuten ditugu hara eta hona baina, ez dugu inor ikusten.



Eta ez dugu hitzik behar izan. Elkarri begiratu eta momentua dela erabaki dugu, gure ordua dela argi ikusi dugu eta, iraganean erabaki bezala, biok prestatu gara datorrenari aurre egiteko. Begiak itxi eta ...

Azkenean lortu dugu! Bion indarrak elkarturik lortu dugu. Hau hotza! Argitasun itzela dago bat-batean. Baina atzera begiratu ondoren ohartu naiz ni bakarrik nagoela. Non dago bestea? Non geratu da? Agian, nire aurretik joan da, beraz, banoa!

- Badator bigarrena! Bultzatu! Indarra egin eta hartu arnasa! Ai! Ai!
Aah!

- Bua! Bua! Bua! -umearen negarra

- Hau ere mutila da! Besteak baino ehun eta berrogeita hamar gramo gutxiago ditu, baina hau ere ondo dago! Bi mutil eder eta osasuntsu eduki dituzu! Zorionak!

Beldarrak, behingoz tximeleta bihurtu dira.

1995ko martxoaren 15a. Munduari heldu naizela ohartarazteko, lehenengoz oihu egin diodan eguna. Amaren besoek inguratu eta bere ezpainen musukatu nauten lehen aldia. Emozioak eraginda aitak isuritako negar malkoek busti nauten lehen eguna. Eta abentura honetan bidaiakide izan dudana nire anaia bikia dela jakin dudan eguna.

Gurutzetan, 1995eko martxoaren 15ean, gaueko 11:56an

Ipuinak



Maialen Galarza Garrastatxu

Akzesita 15-16 urteko sailean

Kurutziaga Ikastola



*Zuzentzaile baten bizitza
gogorra*

Pertsianaren zarata bortitzak esnatu nau, egun berri bat hasi da. Atetik sartzen diren eguzki izpiek begiak mindu dizkidate. Atearen atzean Maite sartu da irribarre batekin. Gaur pozik dago, ea egun osoan zehar mantentzen duen irribarre hori. Sartzearekin batera argiak piztu ditu, ordurako nire begiak ohitu dira eta segidan gauzak ordenatzen hasi da, gaurko zer zuen pentsatuz. Oraindik goiza denez, irratia piztu eta erratzaren laguntzarekin kantatzen hasi da irratiko kanta, denda garbitzen duen bitartean.

Badator gazte bat arrapaladan, Maiteri susto ederra emanaz.

- Ai barkatu, aha ahaa... zabalik al dago? -galdetu dio gazteak arnasa errekuperatzen zuen bitartean.

- Bai, noski, zabaldu berri dut, zerbait behar al duzu? -erantzun dio.

- Bueno... ba *pendrive* honetako dokumentua inprimatzea nahiko nuke, zuri-beltzean mesedez.

- Noski, baina inprimagailua piztu beharko dut, beraz, zertxobait itxaron beharko duzu.

Click, miiiiik, miiiiik mik-mik miiiiii...

- Hemen daukazu, 15 zentimo bakarrik kostatuko zaizu.

- Oso ondo. Bai, agur.

Itzuli dio *pendrive-a eta* dokumentua, irribarre goxo batez lagundurik, maitemintzen duten irribarre horietako bat.

Oso taktika ona iruditzen zait produktuak saltzeko, 15 zentimo dokumentu inprimatu eta egun osoa gogoratuko duzun irribarre batengatik. Ez legoke txarto, erosle gehiago etor dadin. Baina Maite ez da horrelakoa, bere irribarreak ez du preziorik, guztiz naturala da, puntu faltsurik gabea. Edozer emango nuke egunero bere aurpegi irribarrearekin esnatzeagatik. Baina bizitza laburra da. Izan ere, egunean gutako bost-hamar lagun kristal distiratsu horretatik irteten dira inoiz gehiago ez bueltatzeko.

Goiza lasai joan da aurrera, irratia ren kantu alaiekin eta bitartean Maite zerbait ikasten ari da. Orain, arratsaldean murgildurik, jendea dendan sartzten ari da: lan gehiago Maiterentzat. Harritzekoa da zenbat jende sartzten eta irteten den arratsalde arrunt batean.

- Borragoma honek nire izena duenez niretzako har dezaket, ezta? -esan du lotsabakoak MI letra bere izena dela pentsatuz.

- Eta nork esan dizu MI hori zure izena dela? -erantzun dio neskak tonu bortitz batez, beno hori egiten saiatu da, baina, bere irriak tonu horren sinesgarritasuna kentzen dio.

- Beno berdin dio, niretzat hartuko dut -hori esanez eta begi keinu batekin bere larruzko kartzelan sartu nau berriro.

Hilzorian nago, arnasa hartzeko ere indar handia egin behar dut eta konturatu naiz ezer ezabatzeko ere ez dudala balio, gutxi falta da nire azken eguna hel dadin. Orain, egun osoa pasatzen dut bikote hauen elkarrizketak entzuten eta ze maiteminduak dauden ikusten, beraien irribarreak gero eta zabalagoak ... Ze polita den maitasuna!

Kartzela zabaldu eta zerbait aurkitzen hasi da Mikel. Bazter batean bazterturik ikusi, hartu eta kartzelatik atera nau. Bai, gaur nire azken eguna da, guztiz txikituko naizen eguna, nire bizitzarekin bukatuko duen eguna. Konturatu naiz nire bizitza tortura bat dela eta goxotasunez tratatu arren asko sufritzen dela gorputzeko atal bat jausten zaizun bakoitzean.

Baina orain irrikan nago koadernoaren kontra sakatuz eta, behingoz, hiltzeko. Mikelek gogor heldu eta aurrera jaurti nau, Naroaren ile kizkurrean lurreratuz. Honek atzerantz begiratu du ea nor ari zaion deitzen galdetuz. Mikelek, berari begira ari zaiola ikusi duenean, denok ondo ezagutzen dugun irribarre bat eskaini dio. Mutila pixka bat hurbildu da eta “klasetik irtetea zerbait hartzera joango gara? Eguraldi ona egiten du eta, ondoren, buelta bat ematera joan gitezke. –atseden bat egin du, arnasa hartzeko esan dio jada zailena eta ondoren esan behar dionaz prest, esan behar duen dena aspalditik pentsatuta du eta ezin du orain hanka sartu.- Eta dena ondo badoa beharbada beste hainbat egunetan errepika genezake plan berdina, zer iruditzen?”

Begi keinu eta irri goxo batekin bukatu du ahapeka esandako esaldi amaigabea, berdin zaio erantzuna, zailena egina dago. Naroa gorritu egin da, ezin du sinetsi mutila esaten ari zaiona eta konturatu gabe inoiz irten zaion irribarrerik politena atera zaio, munduko pertsona maiteminduenak ere ez du horrelako irribarre zoragarririk, pentsatu gabe buruarekin baietz esan dio, bere ahotik hitzik irteten ez zaiola konturatu denean.

Sartu den hirukote batek atentzioa deitzen dit. Hiru mutil irribarretsu, pozik baina maltzurkeria puntu batekin. Zertan pentsatzen ari den jakitea gustatuko litzaidake... susmo txarra hartu diot nik honi. Maiteri begiratu diote, han ez da sartu direlarik ere enteratu, lanean ari da alde batetik bestera. Momentu hau aprobeztatuz, batek motxila zabaldu eta eskuetan sartzen zaien denarekin bete dute, mota guztiko materiala bilduz. Beraien artean ni ere harrapatu naute. Hankak edukitzea gustatu litzaidake ihes egiteko, besoak ukabilkada bat jotzeko eta handiagoa izan nahiko nuke beraiei aurre egiteko. Zoritxarrez ez naiz horrelakoa, txikia, biguna eta karratua naiz, hanka eta beso bakoa. Askatu nazaten altu oihukatu arren ez dute entzuten eta espero ez nuen modu krudel batez ihes egin dut (edo behartu naute) kristalaren beste aldera. Ez dut Maiteren aurpegia ere ikusteko betarik eduki. Gaur hiru mukizuk irribarre polit bat ezabatu diote. Hiru lotsabako. Zer kostatuko zitzairen 10 zentimo ordaintzea ni moduko bategatik?

Motxila beltz honetan begiak ohitzen ari zaizkit; bat, bost... zenbatzen hasi eta bederatzi borragoma lapurtu dituzte, ni kontuan hartuta,


hamabost boligrafo ere badaude eta ikusten ez ditudan beste hainbat gauza. Zertarako behar dute hainbeste material? Ez nekien ikasteko hainbeste behar zutenik.

Hainbat egun daramatzat larruzko kartzela honetan sartuta. Berriro ere motxila zabaldu zuenean, ez dakit orain dela zenbat denbora, kontua galdu dut eta, atera gintuen banan-banan mahai baten gainera eta ondoren bere larruzko zaku txiki batean sartu gintuen. Poltsatxoan sartzen ez zitzaizkion gauzak beste bi lagunei eman zizkien. Egun hauetan, Mikel dela jakin dut eta ikastolan bizi naiz. Beno, baina larruzko zulo honetan uzten gaitu eta hurrengo eguneraino ez digu atea zabaltzen berriro ere ikastolan esnatu arte.

Ez nuen gure bizitza horrelakoa izango zenik imajinatzen. Nik pentsatzen nuen etxean, lanean eta ikastetxean akatsak zuzentzeko balio genuela, ondo egiteko beste aukera bat ematen genuela. Baina ez, bizitza honetan ez dugu ondo egiteko aukerarik ematen, gure bizitza tortura bat da. Egun hauetan, ni txikitu eta jendea zirikatzeke erabili nau eta ez dago horretarako eskubiderik. Pare bat egun eta, jada, nire gorputzeko laurden bat txikitu dit, izena ere ezabatu dit. Goiz hori gogoratzen dudanean tristura sartzen zait, guraizeak hartu eta bortizki sakatu gainaldea MILAN izena ezabatuz, nortasun agiririk gabe utzi arte...

Ai! Mikelek hartu nau. “Ez, ez, ez nazazu txikitu, bizitzen jarraitu nahi dut!” Baina ez, Naroaren eskura jausi naiz. Ez dut aipatu Naroa: Mikelen gelakidea da. Neska ederra bere irribarre gozoarekin lagunduta, bere hortz zuri perfektuak agerian uzten dituen irribarre perfektua duelarik. Alaitasun horrek Maite gogorazten dit, zelan egongo ote da? Bere dendan nengoen egunak faltan botatzen ditut. Edozer emango nuke Mikelen borragoma ez izateko. Naroak, ordea, oso ondo tratatzen nau. Ez dakit nesken eskuak diren, baina goxotasunez erabili naute eta ez naute inoiz torturatu.

Naroak berriro ere, Mikelen eskuetan utzi nahi nau, baina, “Ez, zuretzat har ezazu, nik ez dut ezertarako behar eta” -aurreratu zaio Mikel, bere intentzioak ikustean. Naroak, niri hainbeste beno, eta denoi gustatzen zaigun irribarre bat eskaini dio eskerrak emateko. Honek ere,



beragan ezinezkoa eta sinesgaitza den irribarre batekin erantzun dio, neskaren irria bezain goxoa egiten saiatuz. Nik irribarre-elkarrizketa honi susmo txarra hartzen diot, maiteminduen elkarrizketa dela ematen du, hitz gabekoa. Naroak bira erdi eman eta aurrera begira geratu da, mutilaren begirada samurra bizkarrean duela. Orduan boligrafo urdin bat hartu eta nire gainean sakatu du, baina, suabe, goxotasunez. Idazten hasi da, “M”, bai, nire izena errekueratuko dut; noski baietz, ba zen garaia! Baina “I” idatzi ondoren geratu egin da, hasperen luze bat, leihotatik arantzagoko begirada galdu bat eta ondoren hiru puntu suspenditu ipini ditu. Bi hizkiak berdin utziz airean suspenditurik, esanahi gabe eta aldi berean esanahi askorekin, Milan izan zitekeen edo agian, Mikel...

Paradisuan bizi naiz hemen, Naroaren zakuan, esku goxoz inguratuta eta Mikelen eta Naroaren begiraden jolasa jarraitzen. Ez dut mutil han ulertzen. Bere larruzko zakuan nengoenean ez ninduen behar eta orain bost minuturo nago bere eskuetan. Bizia agortzen ari zait koadernotik zehar tarrasean erabiltzen nauten bakoitzean. Neska honek inork baino gehiago erabiltzen nau, gainera, mutil trakets honen esku handietan ere denbora asko pasatzen dut. Orain bezala, ni bere eskuan nago, jolasean ari da nirekin eta Naroari zera esan dio:



- Naroa, egidazu kasu! bihar azterketa duzue eta, zure notekin, azterketa hau aprobetxatu beharko zenuke, eta noski, ez zu bakarrik, ze klase honetan.... Bla, bla, bla - jada inori ez zaio inporta matematikako irakasle sorginak esaten duena.

Naroa bere atzean dagoen mutilarengan pentsatzen ari da bere irria ezkutatu nahian. Mikelek hainbeste kostatu zaiona esan dio eta orain bere aurrean daukan neskarekin irteten hasi da, ametsa egia bihurtua. Eta ni, Naroa irakaslearen oihuarekin eman duen saltoaz bere ile kizkurretik behera noa, lurrera heltzerakoan bizia galduko dudala pentsatzen.

Ez dakit borragomen benetako lana zein den egia esan, baina pozik nago, azken finean bi pertsona elkartu ditut. Elkar maitatzen diren bi pertsona, irribarre zabal eta guzti. Orain konturatzen naiz gure lana zein den, gauza handiak egitea, txikiak izan arren bi bizimodu aldatzeko gai gara, garrantzi handiko objektu bat gara.


Ipuinak



Josu Unzueta Ajuria

Irabazlea 18 urtetik gorako sailean

julene azpeitia lehiaketa • 2010 urtea



Leizeak

Roberto Belsue mendi gidariarekin abiatu ginen Rodellar herritik Mascun arroilarantz. Aste Santuko opor haiek topera ari ginen aprobetxatzen: laugarren eguna genuen Guara mendilerroan, nahiz eta Huescan izan hotela.

Bertako taberna aipatu beharko nuke, han biltzen zen faunak Buñuelen filmetarako castinga baitzirudien: etengabe pepinotxoak jaten zituen atsoa, arratsaldero bertaratzen ziren mutil errusiarrei disimuluaz ipurdia haztatzeko ohitura zuena; beti bazter batean jartzen zen gizon bizardun misteriotsua, ordenagailu txikian pokerrean jokatzeko orduak ematen zituen; Drakularen oinordeko zuzenaren antza zuen zerbitzari zurbila, ezpainak bakarrik prezioa esateko zabaltzen zituen; taberna guztiarentzat hitz egiten zuen agure txikia, bere hagin gabeko irribarrea erakusteko grina zuena... Taberna hura 24 orduan zegoen zabalik, astean zazpi egunetan, eta berezitasun horrek halako mikroklima itxia sortzen zuen; bazirudien han barruan denborak kobazuloaren arnasa zuela. Baina joan nadin harira: *Jaime I de Aragon* hotelari buruzko gorabeherak alboan utzita, ekin diezaiodan mendi ibilaldiaren narrazioari.

Mascungo arroilan gora joan ginen, inguru zoragarriari begira. Haitz-orratzek harrizko bizitasuna zuten, gorantz gindoazen heinean itxuraldatu egiten baitziren: haitz soila zenak ehun metro aurrerago Buda jesarri baten itxura hartzen zuen, adibidez. Izadiaren kare-arkitektura hari begira, erraz gainditu genituen Otin herri mamuturainoko kilometroak. Etxe erdi jausietan sartu-irtenean ari ziren haizearen ufadei zizpuruen tankera hartu nien. Herri desertu haren eliza ondora joan ginen mokadu

bat egitera. Non zeuden han bizi izandakoak? Etxeak bezala, hilda guztiak? Ala inguru eder (baina bizitzeko lander) hura utzi eta beste norabait joanak ziren? Hodei moltso batek eguzkia ostendu zuen. Han geunden gu, euskaldun partida bat, domeka hartan gure desaberrri eguna ospatzen, non eta deserri hartan. Zenbat groenlandia behar luke munduak deserritutako guztiak batzeko?

Atsedendia eginda, Mascungo arroilarantz jo genuen berriro, bertako erreka iturbururantz. Bidea ikaragarri ederra zen. Haitz baten gerrialdea zeharkatu genuen, zerrenda estu batetik. Gure oinetan, Mascungo arroilaren hondotik, harkaitz tenteak zutitzen ziren, izadiak eraikitako *shivá-linga* erraldoiak bailiran. Haitzaren zeharkaldia amaitzen ari ginela, goiko ordokitik zetorren erreka ikusi genuen, amildegira bidean. Tarteka ur-putzuak zeuden, uda aldean bainatzeko toki aproposak. Erreka haren jaitsiera oso ospetsua zen. Gelditu eta inguru basati hari begira geratu ginen, xarmaturik.

Roberto Belsue hitzez urria zen, baina, pausaldi hura baliatuta, berbetan hasi zitzaigun. Erreka hura jaisten aritutako batzuei jazorikoa kontatu zigun. Haietariko batekin txakurra zihoan, eta txakur hura inongo laguntza barik ari zen toki malkartsu hartan behera jauzika eta ahausika, jabearen atzetik. Hala ere, halako batean bistatik galdu zuten. Deika ibili zitzaizkion, alferrik baina. Lurrak irentsi ote zuen? Bai, antza: handik aste batzuetara txakur hil bat agertu zen errekan, Rodellar herritik hurbil, galdu zen tokitik kilometro batzuetara.

Nik esan nion euskal folklorean ohiko gaia zela leizeetan desagertutakoena. Istorio batzuk aipatu nizkion, kasurako Iluntzar mendian dagoen leizeari buruzkoa, Nabarniz herrixkaren inguruan. Bertan izanda nago, eta badakit leize horietako bat Iñeritze deitzen dela. Entzuna nuen emakume bati arrakada bat zulo ilun hartan jausi zitzaiola, eta handik denbora batera Nabarnizko iturrian agertu zela. Itxina aldeko leize batean jausitako neska haren berri ere eman nion. Urigoiti auzoko baserritarrek diotenez, Axkorrikan haitzaren azpian, Aldabide erreka lur azpitik sortzen den tokian, tarteka intziriak entzuten dira, leizean amildutako neska harenak ei direnak.

Robertok erantzun zidan horiek guztiak sineskeriak direla, eta berak ere horrelakoak ezagutzen zituela, amak kontatuak. Ama Burgoskoa zuen, Angulo bailarakoa. Esan zidanez, behin amak San Vitoresen irudiaren urrezko negarraren istorioa kontatu zion. Horren arabera, egun jakin batzuetan San Vitoresen begietan urrezko malkoak agertzen dira. Malko horien azalpena ere eman zidan: irudi hori Aro izeneko mendatean dago, Angulo bailararen goialdean, eta mendatearen gainaldean Aro izeneko harkaitza dago. Bada, harkaitz horren eta Eskutxi altuagoaren artean leize bat dago, eta bertan urrezko altxorra gorde ei zuten antzina. Urre hori, tantaka, leize horretatik behera egiten du, pasabide sekretu batetik, non agertzeko, eta San Vitoresen begietan, urrezko malko gisa. Amak Robertori esan zionez, malko horiek harrapatzen saiatzen direnei hatzak erretzen zaizkie. Malkoak aurpegitik lurrera jausten direnean, berriz, hauts bihurtzen omen dira. Eta istorioa kalabazan sartu orduko, azken argibide bat eman zidan: San Vitoresen irudi horrek burua, sorbalden gainean barik, eskuen artean du.

Kontu haiek guztiak sineskeriak zirela berretsi zidan Robertok, baina txakurrarena ez, benetan gertatu zela. Orduan kontatu nion neure etxepeko txakurrarena.



Esan nion neure etxepeko lonja batean auzoko batek txakurra zuela, eta txakur horrek egun osoa ematen zuela zaunkaka, eta are okerragoa zena: gauzez ere uhurika aritzen zela. Hain erreta nengoen, egun batean txakurraren zaunkak grabatu eta gau batean auzokoaren atean jarri nituen, kasete zahar batean. Harrezkero auzoko horrek destainaz begiratzen zidan. Gauzak konpondu beharrean, okertu egin ziren. Seguru nengoen auzokoak apropos uzten zuela txakurra lonjan, ni amorrarazteko. Eta lortu egin zuen. Azkenerako, auzokoen batzar batean burua galdu nuen. Txakurra pozoitu egingo nuela esan nion. Gero, esandakoa zuzendu guran, okerragotu egin nuen: txakurrak ez zuela errurik, benetako erruduna bera zela, eta txakurra lonjatik ateratzeko exijitu nion, osterantzean ezbeharren bat pasatuko zela. Horrela geratu zen auzia.

Labar haietatik aldentzen gindoazela, herri-kondaira haien egiantzaz jardun genuen. Roberto *agnostikoa* zen: bai, Lurraren barrunbean zuloak zeuden, eta zulo haietako batzuk bazuten beste irteera bat, han behean nonbait, urrunean. Baina kondairetan kontatzen zena asmatua zen, haren ustez. Nik kondairen balio artistikoa aipatu nion. Herriak sortutako artelanak iruditzen zitzaizkidan, ulertezinari edo ezezagunari arrazoibideak emateko ahalegina. Kondairak eurak errealak ziren, eta, nire ustez, kontatzen ziren pasadizoetan bazeuden alderdi bi: bata asmatua zen, eta huraxe zen balio artistikoa ematen ziona; bestea, berriz, erreal zen, eta, gehienetan gertaera tragikoren bat izaten zen. Adibidez, egia zen txakur hura leizeren batean jausi zela eta handik aste batzuetara hilda agertu zela, errekan behera. Baina gertaera hari alde artistikoa falta zitzaion, asmazioa. Nik bat proposatu nion:

Leizearen barrualdetik norbaitek deitu zion txakurrari. Ez, ez zen lamia edo jentila, Lurretik 50 argi-urteko distantziara dagoen KOTZ 435 galaxiako *Gul* planetatik etorritako izakia baino. Planeta hartako izakien artean ohikoa zen berrehun urtetik berrehun urtera beste izaki baten itxura hartzea. Txakurrak leize hartan ikusi zuena, esaterako, marmoka erraldoi baten moduko zer edo zer zen, eta haraino etorria zen *Gul* planetako nukleo orojakileak aginduta. Bertan egon behar zuen, ostenduta, eta ikusten zuen lehen izakiaren itxura hartu behar zuen. Horrexegatik deitu zion txakurrari. Itxuraldaketa gertatu ahal izateko, marmoka erraldoiak txakurraren bihotza atera eta jan egin behar zuen.

Horixe bera egin zuen, *Gul* planetara bueltatu orduko.

Robertok bisera janzteko aholkatu zidan, eguzkiak buruan kalte egin zidalakoan. Ea zer txatxukeria zen hura. Nik erantzun nion istorio hura aitzakia besterik ez zela. Benetan, herri-kondairak sortzeko gaitasuna zen kezkatzen ninduen, eta kondaira haiek XXI. mendera egokitzeko modua, baldin bazegoen... Nirea ariketa bat zela, besterik ez. Halaxe esan nion: “Herriak sortutako mundu magiko hori galdu egingo dugu. Oraintsu arte ahoz aho pasatu da belaunaldi batetik bestera, baina katea eten egin da, gaur egun ez dago transmisiorik. Gurasoek ez diete seme-alabei lamien eta jentilen istorioak kontatzen. Eta, bestalde, ez dakit mundu hori baserritik hirira egokitzerik dagoen”.

Robertok baietz erantzun zidan, ados zegoela, baina errua ea norena zen.

“Kondaira biltzaileena”, erantzun nion. Kontua argia zen: istorio horiek paperean badaude, zertarako jarraitu ahoz kontatzen? Baina paperean idatzitakoak ez du baliorik irakurtzen ez bada. Papera, maiz, berbaren kanposantua da. Eta herri-kondairen benetako balioa ezpain eta belarrietan zegoen, huraxe zen bizirik mantentzeko bermerik onena.

Mito urbanoak aipatu zizkidan Robertok, neska auto-stop egilearena kasurako. Haren iritziz, beti egongo da horrelakoak asmatzeko aukera, gaitasun hori ez baita galtzen.

Gaitasun hori XXI. mendean atrofiatuta zegoela esan nion, gaur egun gehiena azalkeria dela, Interneteko sare sozialak arrainez gainezka daudela, eta arrainek ahoa zabaldu eta itxi bai, baina ez dutela ganorazko ezer esaten.

Beste kontu batzuetara pasatu baino lehen, Robertok kondairen sareetan harrapatuta gelditzeko arriskuaz ohartarazi zidan. Txantxetan ote zebilen, ala benetan? “Begira erlijioak eta bestelako sekta horiek guztiak: ez ote da dena pozoi bera?”

Ez dakit zergatik, baina momentu hartan Loten emaztea etorri zitzaidan akordura, gatzeko estatua bihurtu zen hura, atzera begiratzeagatik, iraganerantz. Neu ere iraganari begira bizi ote nintzen?

Paul Watzlawick idazle austriarrak *Bizitza mingosteko artea* liburuan idatzitakoa gogoratu nuen, alegia, iraganari begira bizitzearen abantaila: orainaz arduratzeko astirik uzten ez duela. Horixe ote zen gakoa? Nire auzokoaren txakurraren zaunka etengabeak saihesteko balioko ote lidake gatzeko estatua bihurtzeak, iraganari begira bizitzeak? Kondairek salbatuko ote nindukete? Hala izan zedila desiratu nuen, kondairek jan zezatela errealitatea. Eta desio hura honelaxe irudikatu nuen: *Txakurrak jan dezala jabea!* Eta begitandu zitzaidan pentsamendu haren oihartzuna atzean utzitako Mascungo arroila osoan zabaldu zela, uhuri lazgarri baten moduan, eta txakur hura desagertu zen leize berberetik amildu zela, askoz beherako zegokeen irteeraren bila, irteeraren bila, irteeraren bila...

Ibilaldia amaitzeko, Balcez mendilerroko mendi gorenera jo genuen, Tozal de las Forcas izenekora, eta handik Rodellarrera jaitsi ginen.


Huescako hotelera bueltaturik, tabernako paisaia berdin-berdin topatu nuen. Bezero guztiak zeuden leku berean. Pepinotxoak jaten zituen atsoaren edalontzian, adibidez, garagardoaren marra ez zen milimetroa ere mugitu. Bazirudien beti taberna berean egonda, beti jarleku berean jesarrita, bezeroak lortua zutela denbora geraraztea. Bai, seguru nengoen: han denbora kobazuloetako zen.

Kobazuloetako paisaia hari begira, ideia bat etorri zitzaidan, estalaktititik jausitako ur-tantaren geldotasunaz: tabernako jesarlekuetan hondoraturik zeuden giza estalagmita haiek hara pasabide ezkuturen batetik iritsiak ziren, leizeren batean amildutakoan. Ez ote ziren haiek Otingo biztanleak, euren herria utzi eta Huescako deserrira etorriak? Bai, argi ikusi nuen: haiek gizaki galduak ziren, gizaki mamutuak.

Zenbat gizaki bizi dira horrela munduan, leizeturik, mamuturik? Zenbat groenlandia bete litezke giza estalagmitekin? Pentsamendu horren zaunkek etengabe zauritzen naute. Etengabe.

Amaitu zen Aste Santuko bidaia. Etxerako bidaia amets batetik bueltatzea bezalakoa izan zen. Amets hartan geratu izan banintz...

Baina ez. Etxera sartzean, zerbait arraroa igarri nuen: txakur zaunkarik ez. Erabateko isiltasuna. Komunera jo nuen. Eta han... ametsetik



amesgaiztora pasatu nintzen. Txiza egitera joan, estalkia altxatu eta... han barruan auzokoaren txakurraren burua topatu nuen, niri begira. Eta begirada hark gatzeko estatua bihurtu ninduen. Izan ere, txakur haren begietan jabearen gorrotozko begirada ikusi nuen, *sekula ez dizut barkatuko* zioen imintzioa. Auzokoaren begirada leitu hark erotu egin ninduen, betiko.

Hantxe hasi zen madarikazioa. Orain neu naiz leizean behera amildu naizena. Neu naiz etengabe uhurika nabilena, horma zuri hauen deserrian.

Eta, hala ere, erabat zoratu orduko, auzokoaren begirada lazgarri hari erantzunez edo, nire begietan esperantzaren izpia sentitu nuen. Malkoak igarri nituen, malko beroak masailean behera: bai, gure herri-kondairek bazuten lekua XXI. mendean ere.

Olerkiak



Saioa Hernando Torres

Irabazlea 11-12 urteko sailean

Landako ikastetxea

julene azpeitia lehiaketa • 2010 urtea



Bihotza

Nire bihotza
zuk lapurtu didazu,
ez dakit
nola egin duzun,
baina asko maite zaitut.

Nire bihotza
berreskuratu nahi dut,
ez dakit nola
baino egingo dut.

Nori galdetu behar diot?
agian ilargi beteari,
edo behar bada zuri.
Nik asko maite zaitut
baina... nire bihotza behar dut.

Olerkiak



Irati Arrieta Diaz

Akzesita 11-12 urteko sailean

Landako ikastetxea

julene azpeitia lehiaketa • 2010 urtea



Zu zarena

Mendiak txikiak,
basoak handiak,
itsasoa zabala
bihotza bezala.

Egunak argiak,
enarak alaiak,
ilargia borobila,
begiak bezala.

Handiak, zabala,
alaiak, argia...
zu zeu bezain maitagarria.

Olerkiak



Eneko Sagardoy Mugika

Irabazlea 15-16 urteko sailean

Kurutziaga Ikastola

julene azpeitia lehiaketa • 2010 urtea



Egunerokoaren eguna

Gaur, garajetik kotxearekin irten,
betiko kurba hartu, betiko automatismoei jarraituz.
Begiak ondo irekiaz bat,
lurrundu da autoaren aurpegi gardena.

Goizeko ordu berberean,
aurpegiera berberaz eta ohi duen eran,
nire aurretik pasatu den andre zaharrari
so eginez zeharkatu dut zebrabidea.

Betiko lege zehatzez,
gorriz aurkitu dut lehenengo semaforoa.
Bigarrena berdez, eta hirugarrena gorriz, berriro ere.
Kolare karrusel batean banengo bezala.

Euria hasi du autopistaren 518 km-an.
Eta gelditu egin du 519.ean.
Bi eguzki izpi epel tunelaren amaieran.
Zuhaitzak txikituz doaz *retrobisoretik*.

Fabrikako eguneroko keak ere,
argia ikusi du gaur bere kolore zuriarekin.
Eta laino artean kamuflatu da,
kameleoia bailitzan.

Eta nik, egunean-egunean bezalaxe,
On-ari eman diot radio-kasetean.
Eta une orobatekoan hasi da eguneroko
On-ari segida ematen dion abestia:

“Egunerokoak badu bere xarma.
Egunerokoak badu berea.
Egunerokoa desberdina da,
ez bada egunerokoa...”

Eta atzo, gaur eta biharko lege zehatzaz,
Hasi du berriz ere euriak, lurrundu zaio kotxeari aurpegia.

Olerkiak



Eneko Sagardoy Mugika

Akzesita 15-16 urteko sailean

Kurutziaga Ikastola

julene azpeitia lehiaketa • 2010 urtea



Nahiean

Haizearen doinu leunak laztantzen du goiza,
isiltasuna da nagusi hiriko kale galduetan...
Non hor zehar gatibu gelditzen diren,
Gaueko kontu zahar eta zikinak.

Eguzkiaren lehen izpiek,
berotzen dituzte udaberriko lore jaioberrien petaloak.
Ur trafikoa da erreketan nagusi,
mendixka berdeen babesean.

Senti zaitzaket ni besarkatzen.
Sentitu bakarrik, tamalez.
Laster hasiko dira hostoak txalotzen,
euriaren etorrera txalotzen...

Baina gaur, zurekin egon nahiko nuke,
suntsituz eguzki zein euria,
biok elkarrekin,
hori da nire eskaria.

Minutuak aurrera doaz, gelditu ezin direlarik.
Badoa bai eguzkia, eta baita euria...
Haize nahasia dabil zuhaitz artean ihesik,
gure arteko harremana gaitzetsiz

Ilargi zurbilak lur amatatua du argitzen,
iluntasunaren ateak behin eta berriz zabaltzen.
Argi zuria lurrean eseri da.
Ez zaude nirekin, ez nago zurekin...

Eguzkia eta euria bezala al gara?
Ni saihestea ote da zure plana?
Haizearekin sumatu zaitut ihesi,
Ilargiak ez nau argitu, antza,

Geldi ezazu zoritxarraren melodia,
Maitasun notak nahi ditut, maitea.

Olerkiak



Aitor Albiztur Pulido

Irabazlea 18 urtetik gorakoen sailean



Eskalearen poz topografikoa

Herriko espaloi guztien topografiaren berri du,
isurbideen kokapena ezagutzen du,
euri tantek euren buruaz beste egitean
(errekasto bat osatuz),
estoldetan ehorztera doazenaren jakitun da,
gaizki jarritako harlauzen mugikortasuna ikusia du.

Supermerkatuko atariaren babesa atsegina da euria ari duenean.
Atsegina ez dena, irteten den jendearen poltsen eta bere heste mehar are
mehartuagoaren arteko kontrastea da.

Neska txiki baten aurpegi xaloa hurreratu zaio gaurkoan
eta bere portzelanazko hatzek
eskalearen zaildutako esku ahurrarekin egin dute topo.
Kuprezko txanpon txikiak irribarre handi bi eragin ditu.

Gorbatadun deabruak, ordea, ez du bere aingeruaren ekintza onetsi eta,
bere bulegari hatzek, eskalearen zaildutako esku ahurrarekin egin dute topo.
Askatutako harlauza bat zapaldu du, alabaina,
eta bere erorketan,
euri tanta suizidek kuprezko txanpona lapurtu diote,
errekastoan zehar
estoldan barna galtzeko.

Eskalearen uneko haserre neurgaitza
poz topografiko jarrai batean bihurtu da,
neska txikiaren aita lurzorutik jaikitzen ari den bitartean,
portzelanazko hatzen taktua sentitu baitu bere zaildutako esku ahurrean,
kuprezko txanpon berriaren pisua galdutakoaren neurri berekoa delako
eta aurpegi xalo baten ezpainei ihes egindako muxu bat jaso duelako bere
ezker masailean.

GIZON BAKANA

Ohiko ibilerak ohiko lekuetara darama,
errekastoen ibairako
eta ibaien itsaso zabalerako ibilbideak metaforatuz.
Bere begirada galdua besteen begiradapean galtzen da;
denek begiratzen dute, baina inork ez du ikusten.

Itzal bat da.

Betiko tabernan betiko eserlekuan jesarri da, betikoa eskatzeko.
Sama mehar eta gorputz lodiko, gorputz lodi eta sama meharreko
botilak barra gainean,
bere zain, hor ditu
(hori besterik ez baitu nahi, horditu).

Zerbezaz itotzen ditu bere
poeta, bertsolari eta literaturzale
sentimenduak.

Tabernako zarataren eta jendearen artean bere bakantasunaren berri du;
gizon bakana da, baina, berak kontrakoa uste duen arren, ez bakarra.



ZORIONTASUNAREN ERRESUMA

Zoriontasunaren erresumarako pasaiak salneurri garestia du.
Kezkarik gabeko gizabanako urrien aterpe,
aterperik gabeko gizabanako kezkatuen urritasun,
urritik urrira kezkatutako gizabanakoen gabezia.
Zoriontasuna garesti dago,
ez gure nahien kredituak bere erresumako metro karratuaren balioa
ordain ezin duelako,
gure ezinen abalak abalemaile ezinduen parean daudelako baizik.

julene azpeitia lehiaketa • 2010 urtea

Bertsoak



Julene Sada Sologuren

Irabazlea 11-12 urteko sailean

San Antonio – Santa Rita ikastetxea

julene azpeitia lehiaketa • 2010 urtea



Nire altxorra

Nire altxorra dago
lurrean sartuta
kaxa handi batean
dau ezkutatuta
altxorrean zer gorde
dago aztertuta
horrelakoak daude
ondo babestuta

Inork ikusi ez dezan
nik aldatzen dut ba
egunero altxorra
ametsez beteta
aldatzen dudanean
inor ez da entera
inork ez du sumatzen
nire jokaera

Altxor hori niretzat
bizitza guztia
hor gordetzen dut eta
daukadan dena ia
asko saiatu arren
sekretu lodia
baina norbaiti esan
beharko guztia

Bertsoak



Igor Uruburu Martinez

Irabazlea 13-14 urteko sailean
Kurutziaga Ikastola

julene azpeitia lehiaketa • 2010 urtea



Aberatsak

Mendian gora haritza
hizkuntza bertsolaritza
gure oin gabe, euskara gabe
ezin gara mintza
hauxe da gure baldintza
gure arma baita hitza
ta jaiotzetik hiltzaileak lez
armekin gabiltza

Ta gure herrialdea
ipar ta mendebaldea
eta kolore denen artean
nagusi berdea
polita eta askea
ezinezkoa ahaztea
“Euskal Herria” hitza entzutean
jausten zait lerdea

Euskal Herriko kultura
oso handia dugu ba
ezpata dantza, bertsolaritza...
ta dena eskura
euskal kulturaren itxura
bereziarena bihurtu da
eta zergatik ez da zabaltzen
kultura mundura

Ondo begiratuta hara!
oso aberatsak gara
hizkuntza, lurrak eta kultura
sortzen zait zirrara
egin dezagun algara
ahaztu dezagun ikara
ta disfrutatu Euskal Herrian
egun eta gaba

Bertsoak



Eneko Sagardoy Mugika

Irabazlea 15-16 urteko sailean
Kurutziaga Ikastola

julene azpeitia lehiaketa • 2010 urtea



Artistak

Paper zuria, begi aurrean,
Izenburua dut soilik.
Ideia hutsak, non dago funtsa,
Ez dut inspiraziorik.
Lerro artean galduta nabil,
Ez dut idatzi askorik.
Amaierara heltzear nago,
Luma sikatzen utzirik.

Erdi bidean, utzi dut oina,
Jira biraz atonduta.
Besoak luze, karmin kolorez,
Atzazalak margotuta.
Erritmoaren, noraezean
Musikatan melatuta,
Jauzia gora, hankak airean,
Zirrara artean, galduta.

Mikrofonoa, begi parean,
Argiek dir-dir dagite.
Ahots goxoa, letra ederra,
Ezpainek gidatzen naute.
Harrapatuta, nire magiaz,
Dauzkat begira hainbeste.
Sorgindurik utziko ote ditut,
Hurrengo abestira arte.

Mendikate bat aurrean duzu,
Marrazten zabilta, antza.
Beltza ta grisa, nahastu dituzu,
Sortu baituzu ekaitza.
Bihotza triste, kolore falta,
Horrelakoa emaitza.
Alai ezazu, kolorez busti,
Eztia bota ez gatza.

Plazer egile, sukalde zale,
Jaki artean artista.
Jantzi zuria, txapel luzea,
Amantala dingilizka.
Tripa gizenen lehen errudun,
Koipe guztiei zirika.
Mingain orenen gozatzerako,
Duzue mahaia jarrita.

Bertsoak



Iñigo Legorburu Arregi

Irabazlea 18 urtetik gorakoen sailean

julene azpeitia lehiaketa • 2010 urtea



Zaharrak berri

Doimua: Habanera

Adineko pertsonekin
nabilenez egunero
haiekiko jokaerak
jartzen dit bihotza bero.
Errespetuan bizitzen
ahaztu zaigulako,edo
gure ekintzen bitartez
iraintzen ditugu gero...
Egungo gazteengandik
ezin da asko espero
begirune falta baita
ohitura onen borrero.
Gizarte justuago bat
desio izanez gero,
geronen burua hezi
behar genuke lehenengo.

Globalizatuak bizi
garen momentu honetan
mundu txiki hau denontzat
ezberdina da, benetan.
abentura bat igarri
liteke zaharren hitzetan
“Imsero”-ko irtenaldi
xume batetik bueltan.
Antza, pertsonok aurrera
egin ahala urteetan
fijatzen hasi ohi gara
ia gauza guztietan.
Gazteontzako Benidorm
egon arren hemen bertan,
mundua zabalagoa
da eurentzat gehienetan.

Euskararen inguruan
topa litezke bi mundu,
helduak eta gazteak
jarriz gero buruz buru.
Euskara batuarekin
pasata hainbat apuru
hizkuntza eguneratzen
guk ez diegu lagundu!
Eredu garbia bada
hasieratik, helburu
artifizialtasuna
baztertu beharra dugu.
Guk darabilgun hizkuntza
txarragoa da; seguru
eta aitona-amonak
konplexuz bete ditugu.

Bizipen zaharren kontaktzen
hasi ohi diren unean,
alarma gorria laster
pizten zaigu barrenean.
Berdina errepikatzen
dutenaren izenean
adinduak ez ditugu
onartzen aldamenean.
Eurentzat garrantzitsua
delako hau, aidanean
kontuen testigu izan
behar dugu zuzenean.
Kritika egiten zaie
modurik errazenean,
guk udako oporrak maiz
aipatzen ditugunean...

Krisi makur honen erruz,
enpresak dabilta larri
eta gure fabriketan
igartzen da izugarri.
Lan fisikoa ei denez
adinekoen mugarri,
haiek kenduta gazte bat
azkar ohi dute ezarri.
Aldaketa honek ezin
du ezer onik ekarri
jakinduria trukatzen
ez badiogu elkarri!
Indarraren arrazoia
da kasu hauen oinarri,
arrazoiaren indarra
bartzertzen delarik sarri.

Denboraren kontzeptura
luzatzean ikusmira,
zaharrek sorrarazten dute
gugan kristoren gupida.
Apaiz jaunaren esanaz
ezin garelako fida
tristura hedatu ohi da
gure bihotzen erdira.
Mezak noiz ospatuko zain
egoten dira begira
San Andres, San Martin edo
San Anton dauden tokira...
Egutegiko santuen
diktaduraren harira
eleiz katolikoaren
martiri bihurtu dira.



Gure hurren hezkuntzari
egin diogunez paso
ikastolatik amonek
maiz ohi dizkigute jaso.
Etorkizun hurbilari
jarriz gero aurrera so,
erosotasun hau bihur
liteke gure fracaso.
Nahiz eta lan jarduera
baden nahikoa arazo
noizbehinka aitzaki ere
izan daiteke akaso...
Haurrak amonei uztea
bada nahitaezko pauso
era horretan erraza
da izatea guraso!

Giza arauak aztertzen
hasi ohi garen aldiro
haserretzeko topatu
litezke mila motibo.
Gure etxe txokoetan
gehienetan ezta giro!
jokaera ziztrin honek
ez digu onik egingo...
Etikaren langa maila
nahi baldin badugu igo,
zaharrak tratatu beharko
genituzke goxokiro!
Tentuz, zaharberritzen hasi
behar genuke; astiro
zaharrak berri ez daitezen
izan gurean berriro.



DURANGO
Udala · Ayuntamiento